

Mobuturen erre- azken egunak

◆ Potentzia handiek onetsi egin dute Kabilak hartzea agintea Kinshasan ◆

JOAN ZEN URRIAN ZAIREKO EKIALDEAN MOBUTU Sese Seko lehendakariaren aurka hasi zen txamendu armatua Kinshasako inguruetara itsi da. Laurent Desire Kabilak zuzendutako darrak 32 urte iraun duen erregimena botatzeko urrats batera daude.

Josep Desire Mobutu zuen jaiotzean jarritako ena. 67 urteko agintaria 1965ean igo zen botera estatu kolpe baten bidez. Patrice Lumumbaler afrikar ezaguna traizioz hil zuen 1961ean EBBen konplizitatearekin, eta lau urte berantago Zaireko jaun eta jabe egin zen. Ordutik Mobutu Sese Seko Ngeben du Wa Za Benga izena aritu zuen, hau da, "oztopo guztiak gainditzen


dituen gertari handia eta oilo guztiak estaltzen dituen oilarra". 32 urteotan nahi izan duen bezala agindu du Zairen. Altxamendu guztietan nagusitu da, EEBBen, Frantziaren eta Belgikaren laguntzarekin. Afrikako herririk aberatsena miseria gorrian eta gosearen mende utzi du, baina Mobutu ongi aberastu da. 7.000 milioi dolarreko ondasunak dituela diote Mendebaldeko iturriek. Europa osoan jauregiak eta bestelako jabetzak ere baditu.

Orain, ordea, boterea uzteko garaia heldu zaio, atzeko atetik eta herri osoaren mesprezua jasota. Atzerria dirudi azken hiru hamarkadetan Zaire burdinazko eskuaz zuzendu eta zairetarren kontura aberastu den agintariaren patua. Apirilaren amaieran iragarri zion Washingtongo Gobernuak Mobuturi kargua uzteko garaia iritsi zitzaiola. Urte hauetan guztietan Mobutu Mendebaldearen zerbitzura, eta

bide batez haren interesen alde, aritu da Afrikako erdialdean potentzien nahiak defenditzen. Baina orain, prostatako minbiziaren ondorioz bizitza agortzen hasi zaionean, beste lider bat aurkitu dute Mendebaldeko herrialdeek: Laurent Desire Kabila, Mobuturen etsai nagusia.

Joan zen igandean Hego Afrikan Nelson Mandelaren artekaritzarekin Mobutuk eta Kabilak egungo krisia amaitzeko akordioa hitzartu zuten. Akordioa ez da indarrean jarri, baina adituen iritziz irtenbide bakarra da. Horren arabera, gerrillako liderrak tratsizioko gobernu gida gido du urtebetez, hauteskundeak egin bitartean. Mobuturentzako eta bere familia zuzenarentzako atzerrian bizitzeko aukera aurreikusten du akordioak. Gainera, orain arte Zaireko nagusi izan dena urte horietan zairetarren odolarekin pilatutako aberastasun guztiarekin geratuko da -munduko pertsonarik aberatsenen klubekoa da-, minbiziak uzten dion arte inolako arazorik gabe bizi dadin.

Frantziak izan ezik, potentzia handiek onetsi dute Kabilak hartzea agintea Kinshasan, eta batzuek laguntza estrategikoa eta materiala eman diote Zaireko gizon indartsu berriari. Parisiko Gobernuak izan da botere aldaketa horren aurka azaldu den bakarra, lider berriari emandako sustenguak Frantziak eskualdean urteetan izan duen eragina galtzea ekarri baitu EEBBen



J. APEZTEGIA

1996

Urria: Zaireko Gobernuak banyamulengeak -Zairen izi diren Ruandako tutsien ondorengoak- Ruandara anporatzeko agindua eman zuen. Banyamulengeek urte egin zioten erabakiari eta armetan altxatu ziren. Altxamendu horri beste gerrilla batzuenak jarraitu zion lehendakariak -Suitzan zegoen prostatatutako minbiziaren tratamendua emateko egin zioten ebakuntzatik osatzen-, Ruanda eta urundi akusatatu zituen gerrillariak laguntza emateaz.

Enfrentamenduek krisi humanitario handia eragin zuten Ruandatik eta Burunditik Zaireko ekialdera ihes

egindako errefuxiatuen kanpamenduetan. Gerrillariak Nyangezi eta Bukavu konkistatu zituzten eta ruandar errefuxiatuen exodo handia hasi zen. Nazioarteko gobernuak kanpoko erakundeek alde egin zuten Bukavutik. Errefuxiatuak Goman pilatu ziren. Emma Boninok, Europako Batasunaren gai humanitarioetarako komisarioa, nazioartea salatu zuen gatazka horren aurrean indiferentziak jokatzearagatik. Hilaren amaiera aldera Ruandako Gobernuak onartu egin zuen gerrillariak laguntza eman ziela eta Zaireko Armada akusatatu zuen Ruandako Cyangugu hiriri erasotzeaz.

Azaroa: Etienne Tshisekedi, oposizioko liderra,

Mobuturekin bildu zen Genevan. Bileraren ostean batasun nazionalako gobernuak osatzeko akordioa hitzartu zuten esan zuen Tshisekedi, baina Zaireko lehendakariak gezurtatu egin zuen hurrengo egunean. Gerrillak batu egin ziren Kongo-Zairen Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzaren. Laurent Desire Kabila agertu zen indarren batasuneko lider bezala. Batasunak berehalako ondorioak izan zituen: gerrillak Goma eta Mugunga konkistatu zituen, eta errefuxiatuen kanpamenduetan zeuden extremista hutuak ihes egitera behartu zituen. Amnesty International erakundearen salaketari erantzunez, Kabilak ukatu egin zuen gerrillak errefuxiatuak sarraskitu zituela.

Ofentsiba handiaren ondorioz, ruandar errefuxiatuak bat-batean Ruandara itzultzea erabaki zuten. Hilabete baten buruan milioi erdi inguru itzuli ziren. Ruandako Gobernuak Zairen errefuxiatuak ez zela geratzen esan zuen, baina erakunde humanitarioek gutxienez itzultzaioak hainbat geratzen zirela esan zuten.

Nazioarteak azaroaren hasieran eskuhartze indarrak bidaltzea erabaki zuten, baina hilabete osoz misioa zehazteko eztabaidan aritu ostean, errefuxiatuen itzulerraren ondorioz eskuhartzea ez dela beharrezkoa esan zuten herrialde askok, tartean EEBBek. Kanadak, misioaren buruzagitzak, airez janaria banatzeko proposame-

na egin zuen, baina Zaireko gobernuak onartu.

Abendua: Ugandako Armadak gerrillari ugandarrak babesteko Zairera itzuli zen eta Kabilak erasoak egin zituen. Gobelak kontratatzen hasi zen. Gerrillak zituen Zaireko indar armatuak Butembo eta Bunia eta Mobutu konkistatu zituzten gerrillariak herrien goi bilera egin zuten misioa alde batera uztea erabaki zuten.

1997

Urtarrila: Mobutu Frantziara joan zenean Dondo lehen ministroa Borroketa frontean bere kanpamendua inguratu. Mobutu murtzena gehiago erabaki zuten. Indarrek Uganda eta Ruandara bidaltzea erabaki zuten.

Otsaila: Gerrillariak Kabilak konkistatu zituzten kanpamendua inguratu. Mobutu baina Frantziara joan zenean Hego Afrikako lehendakariak aldeei. Zaireko Armadak al-

PHILIPPE WOLFF

Mobutu Sese Seko Ngeben, Nelson Mandela eta Laurent Desire Kabila, joan zen igandean Hego Afrikan egin zuten akordioaren osteko prentsaurrekoa.

Azken krisiaren